

**ARABAKO ESIKO PROFESIONALEI OHARRA****AVISO A LOS PROFESIONALES DE LA OSI ARABA****GAIA: 2020KO OPORRAK****ASUNTO: VACACIONES 2020**

Covid 19ak eragindako egoera dela-eta aplikatu beharreko salbuespenezko neurrien esparruan, 2020ko martxoaren 12an erabaki zen oporrak eta norberaren gauzetarako lizentziak etetea, bai eta soldatarik gabeko baimenak ez baimentzea ere.

Osasun-larrialdiko egoeran gaudenez, berriz ere salbuespenezko neurriak hartzera behartu gaitzake herritarren osasun-arreta egokia bermatzeko, baina beharrezkoa da 2020ko oporren programazioari ekitea.

Horretarako, Arabako ESiko profesional guztiei jakinarazten zaie eskaera egiteko epea ireki dela.

- Eskabideak aurkezteko epea: 2020ko apirilaren 21etik 2020ko maiatzaren 20ra.
- Baimena emateko epea: 2020ko maiatzaren 31ra arte.

Oporrak, ahal dela, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean hartuko dira (lan-baldintzei buruzko Akordioak adierazten duen bezala), eta/edo, salbuespen gisa, 2020an, urrian, Arabako ESian oporrak hartzeko denbora langile guztien artean hobeto banatzeko eta zerbitzu eta unitateen antolaketa errazteko.

Pandemia-egoerak eragindako salbuespena dela eta, oporretarako baimena baldintzatuta egongo da beti, eta une oro bermatuko da herritarrek behar duten osasun-prestazio egokia, ezinbesteko kasuetan, pandemian edo osasun publikoko murrizketetan neurri berriak adostu ahal izango baitira.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Arabako ESiko profesional guztiei egindako ahalegin handiagatik eta egunerokotasunean erakutsitako profesionaltasunagatik. Gogoratu behar dugu, halaber, ondoriorik gabe geratzen dela norberaren gauzetarako lizentziak, antzinasun-egunak eta soldatarik gabeko baimenak etetea.

Dentro del marco de las medidas excepcionales a aplicar con motivo de la situación provocada por el Covid 19, el pasado 12 de marzo de 2020 se acordó la suspensión del disfrute de las vacaciones y licencias por asuntos particulares así como, la no autorización de permisos sin sueldo.

Si bien, la situación de emergencia sanitaria en que nos encontramos puede obligarnos a adoptar, nuevamente, medidas excepcionales para garantizar la oportuna atención sanitaria de la población, resulta preciso iniciar la programación de las vacaciones de 2020.


Para ello, se comunica a todos los profesionales de la OSI Araba la apertura del plazo para realizar su solicitud.

- Plazo de solicitud: del 21 de abril de 2020 al 20 de mayo de 2020.
- Plazo para autorización: hasta el 31 de mayo de 2020.

Las vacaciones se disfrutarán preferentemente en los meses de Junio, Julio, Agosto, Septiembre (tal y como indica el Acuerdo de condiciones de trabajo) y/o, de forma excepcional en el año 2020, el mes de octubre, con el fin de aplicar en OSI Araba una mejor distribución del tiempo de disfrute entre todo el personal y facilitar la organización de los Servicios y Unidades.

Debido a la excepcionalidad provocada por el estado de pandemia, la autorización de vacaciones estará siempre condicionada y se hará efectiva garantizando, en todo momento, la adecuada prestación sanitaria que requiera la ciudadanía dado que en caso de fuerza mayor, pandemia o restricciones de Salud Pública se pudieran acordar nuevas medidas.

Por último además de agradecer a todos y cada uno de los y las profesionales de la OSI ARABA su gran esfuerzo y la profesionalidad demostrada en el día a día, recordar que del mismo modo, queda sin efecto la suspensión de licencias por asuntos particulares, días de antigüedad y permisos sin sueldo.



ARABA ESI  
OSI ARABA  
PERTSONALEKO KUDUNTARITZA  
PERSONAL  
Fdo.: Francisco Javier PEDROSA RODERO  
DIRECTOR DE PERSONAS OSI ARABA